

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezere berriak aplikazioaren publizitatearen bidez lortuko ditugu eta hau sare sozialetan bidez egingo dugu. Haiekiko harremana orokorrean automatizatua egongo da. Baina arazoa larria bada (aplikazioak ezin die lagundu), telefono erantsiak dituzte; hala nola, polizia, abokatuak, psikologoak...

Harreman automatizatu bat izango denez, chatbot-ak nahi duten bezala trata dezan, aplikazioa irekitzean, lehen aldiz inkesta labur bat egin beharko dute, eta datu batzuekin bete beharko dute, hala nola: izen-abizenak, jaiotze-data, generoa, izenordainak, sexu-orientazioa...

Gure erabiltzaileen iritzia asko inporta zaigunez, hilibatearen amaieran, aplikazio berean inkesta txiki bat agertuko da, non kexak idatzi ahal izango dituzten eta app-a hobetu.

Gainera, atal bat jarriko dugu non joko antiestres, bideo interaktiboak eta abar aurki dezaten.

Aplikazio honek, lehenik eta behin, galdera-sorta txiki bat egingo luke; adina, izena, generoa... Horrela, erabiltzaileak erosoago sentituko lirateke gure laguntzailearekin chatbotaren bidez hitz egitean. Ondoren chat nagusira pasako lirateke, non Atenearekin topo egingo lukete, jainkosa greziarren antzeko laguntzaile xarmanta. Aplikazio berean, laguntzaileaz gain, beste funtzio batzuk ere aurkituko genituzke: pertsonen laguntzeko aplikazioan parte hartu zuten psikologoak, poliziaren eta abokatuen telefono-zenbakiak, zure emozioak egunero erregistratzeko egutegi bat, laguntzaileari zure osasuna neurtzen lagunduko liokeen grafiko bat sortzeko (ikono bidez aukeratu ahal izango lirateke, sentimenduak...), atzerako kontu bat (aukera hauekin: autolesioak, tabakoa...) pertsona aurrerantz jarraituzera motibatuzeko laguntzaileak denbora gutxian zehar erabiltzaileari zorianduko luke ohitura txar horiek ez eramateagatik, meditazio, aholku eta arnasketa kontrolatuko atal bat izango luke erabiltzailea lasaitzeko. Horretaz gain, funtzio gehiago egongo lirateke.